

UNIBERTSITATEEN MINISTERIOAREN UIP LAGUNTZEN ONURADUNENTZAKO MUGIKORTASUN LAGUNTZEN 2021 DEIALDIA (BOE 25-11-2021)

Deialdiaren xedea:

Laguntza osagarriak UIP (Unibertsitate Irakasleen Prestakuntza) laguntzen onuradunentzat, egonaldi laburrak eta aldi baterako lekualdaketak egiteko 2022an, eta 2021-22 ikasturterako doktorego programetako matrikulazio prezioak ordaintzeko.

Onuradunak:

Eskaerak egiteko epearen amaieran UIP laguntzak izango dituzten pertsonak, deialdi honetan laguntza osagarri mota bakoitzerako ezarritako baldintzak beteko dituztenak eta laguntza osagarria finantzatzen duen jarduketan UIP onuradun izaten jarraituko dutenak.

Laguntzen ezaugarriak:

Epeak:

Aldi baterako lekualdaketak eta egonaldi laburrak egin beharko dira 2022ko martxoaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartean.

Baldintzak:

Aldi baterako lekualdaketetarako laguntzek ezaugarri hauek izango dituzte:

- Lekualdaketa egingo da atzerriko ikerketa zentro edo ikertalde batera.
- Ikerketa zentro edo ikertalde nabarmen bat izango da UIP laguntza jaso zuen doktorego tesiaren edukiari dagokion eremu zientifiko, tekniko edo artistikoan.
- Lekualdaketa egingo da gutxienez sei hilabeterako eta gehienez bederatzirako.

Egonaldi laburretarako laguntzek ezaugarri hauek izango dituzte:

- a) Egonaldiaren xedea izango da laborategiko ikerketan aritzea, funts bibliografikoak edo dokumentalak kontsultatzea, teknika instrumentalak ikastea edo beste landa lan batzuk egitea.
- b) Oro har, egonaldia egingo da atzerriko ikerketa zentro edo ikertalde batean.
- c) Salbuespen gisa, Espainiako estatuko ikerketa zentro edo ikertalde batean egin ahal izango da, hautagaiak justifikatzen badu ikerketa zentro edo ikertalde horretan egitearen egokitasuna. Kasu horretan, ikerketa zentroa edo ikertaldea egongo da onuradunaren ikastegiaren udalerrian ez beste batean, eta beharrezkoa izango da ohiko bizilekua utzi eta bizitokiz aldatzea, familia bizilekua edo harrera zentroaren bizilekua izango ez den bizitoki batera.
- d) Ikerketa zentro edo ikertalde nabarmen bat izango da UIP laguntza jaso zuen doktorego tesiaren edukiari dagokion eremu zientifiko, tekniko edo artistikoan.
- e) Egonaldia izango da gutxienez bi hilabetekoa eta gehienez hiru hilabetekoa.

Gainera, justifikatutako salbuespenak salbuespen, egonaldia egin beharko da harrerako ikerketa zentroaren edo ikertaldearen ohiko jarduera akademikoan aldian.

Salbuespen gisa, Espainiako estatuko zentroetan eginiko egonaldiak hilabetekoak izan ahalko dira, horren egokitasuna justifikatzen bada.

Eskaerak aurkezteko epea:

✓ Eskatzaileentzat: 2022ko urtarrilaren 14tik otsailaren 14ra arte (14:00)

✓ **UPV/EHUK adskripzio ikastegi gisa eskaerak baliozkotzea: 2022ko otsailaren 8ra arte, asteartea (08:00)**

Eskaera aurkezteko era:

Eskaerak egingo dira Unibertsitateen Ministerioaren inprimakien bitartez: <https://sede.educacion.gob.es>

Eskaerarekin batera aurkeztuko dira:

a) Justifikazio memoria, honako hauei buruzko informazioa izango duena: eginiko prestakuntza aldia eta tesia aurkezteko aurreikuspena; egonaldiaren xedea eta lan plana; egonaldiaren xedearen eta ikerketa zentroaren edo ikertaldearen egokitasunari buruzko informazioa, eskatzailearen prestakuntzari dagokionez; egonaldiaren iraupena; egonaldian zehar egin beharreko lanaren helburua. Justifikazio memoriak tesiaren zuzendariaren oniritzia izan beharko du, eta 1.000 hitzekoa izango da gehien jota.

b) Harrerako ikerketa zentroaren edo ikertaldearen onarpenaren dokumentu akreditazioa, (egonaldia edo lekualdaketa egingo den zentroa).

c) Doktorego tesia egiten ari den adskripzio zentroaren baimena.

Eskatzaileak eskaera sinatuko du, sistema hauetako bat erabilia: NAN-e, administrazio publikoek onartutako ziurtagiri elektronikoa, edo sinadura elektronikorik ez duten eskatzaileei Unibertsitateen Ministerioaren egoitza elektronikoa erregistratzean emango zaizkien gakoak izango dituen ziurtagiria, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legearen 10. artikulua 2. atalak ezarritakoaren arabera.

Behin eskaera beteta eta beharrezko dokumentuak aurkeztuta, eskatzaileak eskaera berretsi egin beharko du.

UPV/EHUko IZAPIDEA:

Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura lortzeko, eskatzaileek "Adskripzio zentroaren baimena" inprimakia bidaliko dute, beteta eta sinatuta, rrhh-inves.dgi@ehu.eus helbidera, tesiaren zuzendariak sinatutako "Memoriarekin" eta harrera zentroaren onespenearekin batera.

UPV/EHUn kontaktua:

Telefonoa: 94 601 7865, e-posta: rrhh-inves.dgi@ehu.eus

Unibertsitateen Ministerioan kontaktua:

Prozeduraren inguruko kontsultak hurrengo e-postan egin daitezke: estanciasbreves.fpu@universidades.gob.es ✉

Egonaldia edota lekualdaketa amaitzerakoan aurkeztu beharreko memoriaren

inguruko kontsultak hurrengo e-postan egin daitezke:
seguimiento.cte@universidades.gob.es✉

Informazio gehiago:

<https://www.educacionyfp.gob.es/servicios-al-ciudadano/catalogo/estudiantes/becas-ayudas/movilidad/universitarios/fpu-estancias-traslados.html>